

# **IKASTORDUAREN MURRIZKETA EZ APLIKATZEAGATIKO EPAIKETA URTARRILAREN 20an IZANGO DA**

**STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek elkarretaratze bat burutuko dute egun horretan 2024ko otsailean sinatutakoa bete dadin aldarrikatzeko, urriaren 21ean auzitara jo ondoren**

Hamalu greba egun eta mobilizazioen ondorioz, Greba Amaierako Akordioa (GAA) sinatu zuten Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako mahai negoziatzailean ordezkaritza daukaten sindikatu guztiek eta patronalek. 2024ko otsailaren 5ean izan zen. Akordioa indarrean dago eta langileek akordioa bete dute. Horrela, greba bertan behera utzi zuten sinatu zen egunetik.

Akordioa sinatu eta ia bi urte beranduago ere, patronalek eta ikastetxeek ez dituzte akordioko edukiak bete. Sindikatuen ekimenez 18 negoziazio mahai egin diren arren, Greba Amaierako Akordioan sinatutakoa berriz negoziatzeko saiakeran dabilta patronalak, eta oztopoak jartzen ari dira bertako edukiak adostutako baldintzetan hitzarmenean txertatzeko. Patronalak, beste behin ere, fede txarrez jokatzen ari dira, GAAn sinatutako hainbat eduki behin eta berriz urratzen baitituzte.

Soldaten kasuan: 2025eko urtariletik aurrera ez diete % 16ko soldata-igoerari eutsi DBH, Batxilergoa eta Lanbidea Heziketako langileei, nahiz eta akordioak horrela behartzen dituen eta, % 15,43ra murriztu diete. STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek ez-betetze hau ere salatu zuten.

**Egun ez dira aplikatzen ari, (ikastetxe gutxi batzuetan salbu), GAAn adostutako 2025eko irailaren 1etik aurrera eskola-ordu bateko murrizketa**, ikastetxe askotan lanpostuak sortzea eta beste batzuetan kaleratzeak saihestea ekarriko lukeena.

Hori horrela, STEILAS, CCOO irakaskuntza, LAB eta UGT sindikatuek auzibideari ekin zioten. Gatazka kolektiboko demanda bat aurkeztu zuten urriaren 21ean EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, patronalei eta ikastetxeei erreklamatzeko GAA bete dezatela eta etapa guztietan eskola-ordu bat murriztu dezatela eta lan pertsonalerako ordu osagarri bat gehitu dezatela. Irailaren 25ean adiskidetze-ekitaldia izan zen, baina patronalek uko egin zioten eskola-ordu bat murrizteari eta irakasleen lan propiorako lanordu gehigarria bihurtzeari. Azaroaren 6an, urtarrilaren 20rako epaiketa-dataren jakinarazpena jaso zuten sindikatuek.

Beraz, Urtarrilaren 20an langile guztiei dei egiten diete elkarretaratzean parte hartzera EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, 2024ko otsailean sinatutako akordioko eduki hau ere bete dadin aldarrikatzeko

**ESKOLA-ORDU MURRIZKETA ORAIN!**

**SINATUTAKO AKORDIOA BETE!  
ATZERAPASORIK EZ!**

2025eko azaroaren 10a



## **EL JUICIO POR NO APLICAR LA REDUCCIÓN DE LA HORA LECTIVA SE CELEBRARÁ EL 20 DE ENERO**

**STEILAS, CCOO, LAB y UGT llevarán a cabo una concentración ese día para reivindicar el cumplimiento de lo firmado en febrero de 2024, tras acudir a los tribunales el 21 de octubre**

Tras catorce jornadas de huelga y movilizaciones, las patronales y todos los sindicatos con representación en la mesa negociadora de los centros de Iniciativa Social firmaron el Acuerdo de Fin de Huelga (AFH). Fue el 5 de febrero de 2024. El acuerdo está vigente y los y las trabajadoras han cumplido el acuerdo. Así, la huelga fue desconvocada desde el día de su firma.

Casi dos años después de la firma del acuerdo, las patronales y los centros no han cumplido con todos los contenidos del mismo. A pesar de que a iniciativa de los sindicatos se han celebrado 18 mesas de negociación, las patronales están intentando renegociar lo firmado en el Acuerdo Fin de Huelga y están poniendo trabas a que sus contenidos se integren en el convenio en los términos acordados. Las patronales, una vez más, están actuando de mala fe ya que incumplen reiteradamente diferentes contenidos firmados en el AFH.

En el caso de los salarios: a partir de enero de 2025 no han mantenido el incremento salarial del 16% a los y las trabajadoras de ESO, Bachillerato y FP, pese a que el acuerdo así les obliga, y nos lo han reducido al 15,43%. Los sindicatos STEILAS, CCOO, LAB y UGT también denunciaron también este incumplimiento.

**Actualmente no se está aplicando (salvo en unos pocos centros) la reducción de 1 hora lectiva a partir del 1 de septiembre de 2025 acordada en el AFH**, y que supondría generación de puestos de trabajo en muchos centros, y evitar despidos en otros.

Así, los sindicatos STEILAS, CCOOirakaskuntza, LAB y UGT iniciaron la vía judicial. El 21 de octubre presentaron una demanda de conflicto colectivo ante el TSJPV para reclamar a las patronales y a los colegios que cumplan el AFH y reduzcan 1h lectiva en todas las etapas y que aumenten una hora complementaria para trabajo personal. El 25 de septiembre fue el acto de conciliación pero las patronales se mantuvieron en su negativa a reducir 1h lectiva. El 6 de noviembre, los sindicatos recibieron la notificación de la fecha del juicio para el 20 de enero. Por tanto, **hacen un llamamiento a todos los y las trabajadoras para que el día 20 de enero participen de la concentración ante el TSJPV para reivindicar que se cumpla también este contenido del acuerdo firmado en febrero de 2024**

**ESKOLA-ORDU MURRIZKETA ORAIN!**

**SINATUTAKO AKORDIOA BETE!  
ATZERAP AUSORIK EZ!**

10 de noviembre de 2025

